

Amagandiko edoskitzea eta sendagaiak: gehienetan posible den bateragarritasuna

Última actualización: agosto 2019

Amagandiko edoskitzearen onurak, bai bularreko-haurrentzat, amarentzat, familiarentzat, osasun sistemarentzat baita gizartearentzat orokorrean jakinak dira, argitalpen ugarietan egiaztatu eta argitaratu direlarik. Amagandiko edoskitzea bertan behera uzteak arrazoi nabarmenik gabe, osasunarentzat premiazkoa ez den arrisku bat onartzea suposatzen du, bai haurra baita amarentzat ere bai.

Edoskitzaroan dauden emakumeen %90-a baino gehiagok sendagaiak edota fitoterapiako produktuak hartzen dituzte. Arrazoi honengatik haurrari bularra emateari uztea maizkoa da, nahiz eta salbuespen diren produktu kopuru txiki batek besterik ez benetazko arriskua oinarritzat eduki. Gainontzekoetan, erabaki hau ez legoke benetazko arrisku batean oinarrituta. Era berean, amaren dozena erdi gaixotasunen kasuan besterik ez, edoskitzea desegokia izango litzateke.

Garrantzitsua da, sendagileek egunerokotasunean agintzen dituzten botika ia denak edoskitzearekin bateragarri direla jakitea. Honetaz gain, edoskitzen jarraitzea ama eta haurrarentzat, botika edota sendagai asko hartzeko beharraren gaintik dago. Botikak hartzea kasu gehienetan erreztasunez sahiestu daitekeelarik.

Osasun profesionalok, bular emaleei aholku eman diezaiokegu gaixotasun edota bestelako jasankizunen aurrean sendagaiak hartu behar dituztenean. Farmakologiaz eta pediatriaz oinarrizko ezaupide batzuekin, eta gidaliburu onak erabiliaz.

Paracetamol-ak edota **ibuprofenoak** ez dute inolako arazorik sortzen edoskitzaroan.

Gaixotasun infekzioso baten sendatze prozesuan **antibiotiko** bat hartzea beharrezkoa balitz, ohizkoak diren gehienak amagandiko edoskitzearekin bateragarriak dira, nahiz eta quinolonak sahiestea hobe izan.

Hormona gehienak, kortikoideak barne, intsulina eta tiroxina amagandiko edoskitzearekin bateragarri dira; estrogenoen erabilera sahistea komenigarria da, ama-esnearen ekoizpena murriztu dezaketeelako. Antisorgailuak erabiltzekotan, hoberenak mekanikoak dira (preserbatibo, DIU), progestageno pilulak eta MELA metodoa.

Esan genezake, **antitiroideo**, **antiepileptiko**, **antirreumatiko**, hesteen hanturazko gaixotasunentzako sendagaiak eta zenbait **inmunosupresore**, ohizko dosietan hartuta, ia denak amagandiko edoskitzearekin bateragarri dira.

Prozedura odontologiko guztiak: anestesia lokala, hortz-zuriketa eta antibiotiko edota antiinflamatorioen preskripzioa eta abar, baita ere amagandiko edoskitzearekin bateragarri dira.

Ekografiak, **erradiografiak**, **TAC** eta **RNM** frogak, nahiz eta kontrasteekin egin, amagandiko edoskitzearekin bateragarri dira. Miaketa hauetan erabilitako kontraste asko iodatuak dira, baina iodoa kontrastearen molekulari finkatua dago eta ezin da askatu, materia bizigabea balitz bezala jokatu. Amagandiko edoskitzea ez da **mamografia** batengatik bertan behera utzi behar, baina bere interpretazioa zaildu dezakeenez ekografia bat egitea posible litzateke. Froga egin baino lehen bularra esnez ondo hustutzea (eradoskitzea) onuragarria da, miaketaren ondoezak gutxitzeko eta emaitzaren interpretazioa errazteko. Bestalde, Isotopo radiaktiboak erabiltzen dituen froga bat (**gammagrafia**) egiteko orduan, arretaz aztertu behar da zenbat denbora pasa behar den haurra berriro eradoskitu arte froga hau egin eta gero; kasu honetan garrantzitsua da lehendik bular emaleak bere esnea ateratzea eta modu egokian gordeta edukitzea ondorengo egunetan beharrezkoa izango bait da.

www.e-lactancia.org web orria oso erabilera errezekoa da. Hemen bai gaztelaniaz eta bai ingelesez, ama-bular bat inplikatu dezaketen 1500 aukera desberdinen artean erabaki egokiak hartzen laguntzen du. Orrialde honetan kontsulta egin eta gero, zalantzek jarraitzen badute, galdeketa bat egin daiteke honako posta elektronikoa honetan:

elactancia.org@gmail.com.

Edoskitzearekin loturik dauden beste edozein gaietarako, AELAMA.ko amen eta profesionalen foroa erabil dezakezu:

<http://aelama.org/foro/>

Zorionak amagandiko edoskitzea matentzen saiatzeagatik..

Amagandiko edoskitzean kontraindikaturako sendagaiak

Koagulazioaren aurkakoak	Fenindiona
Kardiobaskularrak	Amiodarona (iodoarengatik*)
	Ergot-aren deribatuak (prolaktina inhibitzen dute): Ergotamina
Ginekologikoak	Ergot-aren deribatuak: Bromokriptina, Kabergolina eta Lisurida
Antineoplásikoak	Antineoplásikoak
Psicofármacos	Anfetaminak
Ioduroak , topikoak barne *	
Drogas de abuso social	Anfetamina, Kokaina, Fenziklidina, Heroína, LSD, Marihuana, Alcohola **
* Iodoa dosi altuetan kaltegarria da eta botika hauek iodo kantitate handiak dituzte, baina haurdunaldian eta edozkitzaroan emakumeek gehigarri bat (200 mikrogramo ioduro potasiko) hartu behar dute, baita arraia eta gatz iodatua jan ere.	
** Nohizbeinkako neurritzko alkohol kontsumoa ez dago edozkitzaroan kontraindikaturia. Kontsulta ezazu kontsumitu eta gero bularra eman ahal izateko itxaron beharreko denbora honako web orrian: http://www.e-lactancia.org/breastfeeding/ethanol/product	

Edoskitzea kontraindikaturia dago honako gaixotasunetan

Amarenak	HIES / GIB: azken datuen arabera badaude ziurtasun baldintzak non GIB-arekin kutsatutako amek ziurtasunez bular eman diezaioketen beraien seme alabei http://www.who.int/maternal_child_adolescent/documents/hiv-infant-feeding-2016/en/
	Tuberkulosi (TBC) actiboak: seme/alaba amarengadik aldendu amak 2 aste tratamendu bete arte. Haurrari profilaxia. Bularretatik ateratako esnea har dezake tuberkulosi mastitisarik ez badago
	Giza Linfotrofo birusa T-I eta T-II
	Herpes simplea bularretan lesioak badaude (bularrak lesiorik ez badu haurrak bularra hartu dezake)
	Psicosis larriak (psikiatrak baloratuta)
	Droga-menpekotasuna
	Neoplasiak tratamendu kimioterapikopen (valorar posible lactancia entre ciclos en cada caso: Ver tiempos de espera de cada medicación en www.e-lactancia.org)
	Sheehan-en sindromea
Haurrarenak	Galaktosemia (galactosa 1-fosato uridiltransferasa-ren eza)
	Laktosa intolerantzia kongenitua

Edozkitzaroan kontuz hartu beharreko farmakoak	
Antibiotiko eta antiinfekziosoak	Amantadina (EG), Kloranfenikola (H), Lindanoa (H)
Antiepileptikoak	Fenobarbitala , Primidona (S)
Antihistaminikoak	1go belaunaldikoak sahiestu (S, EG)
Antiinflamatorioak	Urre gatzak (B)
Kardiobaskularrak	Reserpina (S)
Betablokeanteak (KB)	(Labetalola, Oxprenolola, Propranolola edo Metoprolola aukeratu)
Hodi-zabaltzaile antiadrenergikoak (KB)	(Metildopa edo Hidralazina aukeratu)
Sudur deskongestiboak (KB,L)	
Diuretikoak	Tiazidak (EG)
Droga sozialak	Alkohola (S), Kafeína (L), Tabakoa (L)
Endokrinologikoak	Zenbait ahotik hartzen diren diabetes-kontrakoak Estrogenoak (EG)
Gastrointestinalak	Laxante "aktiboak" (G)
Inmunosupresoreak (H)	(Ziklosporina edo Azatioprina aukeratu)
Psikofarmakoak Antipsikotikoak	Fenotiazinak (Klorpromacina) (S) Litioa (KB, S): haurren kontrol kliniko eta analitikoak derrigorrezkoa da
Psikofarmakoak Benzodiazepinak (S)	(Lorazepam aukeratu ansiolitiko moduan)
Psikofarmakoak Antidepressiboak	Doxepina (S, KB), Nefazodona (S, KB) (Sertralina, Paroxetina edo Fluoxetina aukeratu)
<ul style="list-style-type: none"> • Arreta gehiago giltzurrun-gutxiegitasuna duten amekin, haur goiztiarrekin eta jaioberriko periodoan. • Kontsutatu medikamentu debekatuen zerrenda glucosa-6-fosfato-DH falta duten haurrentzat. <p>Efektu posibleak erreparatzear: KB Kardiobaskularrak, G Gastrointestinalak, H Hematologikoak, L Suminkortasuna-loezina, B Bestelakoak, EG Esne-gutxitzea, S Sedazioa</p>	

Bularra emateko itxaron beharreko denbora radiofarmakoekin miaketa bat egin eta gero	
KOBREA-64	5 egun
FLUDESXYGLUCOSA 18F, Fluor 18 (Fluotracer, Fluorscan)	0-4 ordu
GALIOA-67 ZITRATO - 7 Mbq (0,2 mCi)	Aste bete
GALIOA-67 ZITRATO - 50 Mbq (1,3 mCi)	2 aste
GALIOA-67 ZITRATO - 150 Mbq (4,0 mCi)	4 aste
INDIOA-111, IN-111M, Satumomab Pendetido (OncoScint CR 103)	24 ordu
INDIO-111, IN-111M, Satumomab Pendetido (OncoScint CR 103) 20 Mbq (0,5mCi)-ko dosiarekin	Aste bete
SODIO-RADIOACTIVO	16 egun
TALIO-201	2 aste
TECNECIO TC-99M	Konposatu eta dosiaren arabera. www.e-lactancia.org orrian kontsultatu
XENON-133, XENON-127	Minutu gutxi
YODO 123, 125 y 131	Konposatu eta dosiaren arabera. www.e-lactancia.org orrian kontsultatu
<p>Batazbesteko bizitza motzena duen radionuklidoa erabiltzen saiatu. Radiologoaren aholkua eskatu. Lehendik bular emaleak bere esnea atera eta modu egokian gordeta eduki ondorengo egunetan haurrari emateko.</p> <p>Bular-esnea atera eta alde batera utzi gomendatutako denboran zehar.</p> <p>Iodo-131 eta Estrontzio-89M-k tratamendu bezela erabilia edoskitzea bertan behera uztera derrigortzen dute.</p>	